

NERE OMENALDIA

Manuel Lekuona

Eskerrak.

Eskerrik asko.

Orixe da, ordu ontan nere ezpañetatik darion itza, itz bedeinkatua. Eskerrik asko.

Omen-aldi bat opa didazute. Omenaldi bat, Euskalerriaren onerako egin ditudan idaz-lan guztiengatik. Bañan ez, askotan oi dan bezela, omen-aldi folklorikoa. Ikaskuntzazko ornen-aldi bat baizik. Estudiozko omenaldia.

Eskerrik asko, lendabizi, nere lanak analizatzen lan-egin dezuteni, egin dezuten lanagatik. Egia esan, nere bizitza guztian lanean jardun det, eten gabeko lanean, bizioz bezela lanean. Bañan ez nuan sospetxatzen nere lan aiek olako jakinduriatzko garrantziarik izango zutenik. Ez dakit begi argia euki ote dezuten zuen analisisetan; ala, guztia, borondate on baten fruitua izan ote dan. Dana dala, eskerrik asko.

Bañan, batez ere eskerrik asko gure Gipuzkoari bere seme kutun ta berezi aitortu naualako.

Egi-egia esan bear badet, orixe bakarrik naiko pagoa zitekean, nere betiko lan guztiengatik; nere aberri txiki dan nere Gipuzkoak nere lanak orrenbeste ixtimatzea, orren ontzat ematea.

Ba da Biblian esaera bat: *Dicite iusto QUONIAM BENE* = “Esaiozute nere seme zintzoari, ONDO DAGOLA”. Bibliako itz oiek, beren murritzean, beto ere alako atximur goxo bat egin izan didate neri nere barrunbean, Liburu Santuan irakurtzean. “Esan nere seme zintzoari, ONDO DAGOLA”. Saririk ederrena neretzat, Gipuzkoaren aotik itz oiek entzutea: Ondo portatu naizela, eta orregatik bere seme kutuntzat, seme berezizat aitortzen nauala. Sairik ederrena neretzat.

Eskerrik asko, beraz, Ama Gipuzkoari ere.

Gañerakoan, zer esango det nik?

Itz-gutxi, esan-zalea izan naiz beti; ixillik egon naiago, itz-egin baño. Bañan nere lan etengabe, au, lan neketsua izango zitzaidala uste badu norbaitek, egi-egia aitortu bear diot ori uste lezakeanari, nere etengabeko lana, lan bat ez baño, atsegin bat areago izan zaidala.

Izan ere, lan ondo egiñak beti du beregan bere atsegin; bañan batez ere lana MAITEZ egiten danean... Ezgalde ama bati, zenbat neke kostatzen zaion, bere semetxoa azitzea. “Maite danean ez dago nekerik” erantzungo dizute.

Nik ere berdin-berdin: MAITE DANEAN, EZ DAGO NEKERIK.

Eta ez nua ezer geiago esatera.

Esana dago.